

Lamiña bat maiteminduta

Anboto ta Arangioren atxen bitartean, Zabalandi deritxon landa eder bat agiri da.

Antxe ebillen artzain Aramaxoko mutil eder bat.

Noizean bein, lamiñak urteten yakan. Eta dantzan aidean erabilten eben guztiak.

Eta bera, pozik!

Areitako batek etxeragiño laguntzen eutsan. Eta egun batzuen buruan, alkarregaz ezkontzeko egunea egin eben.

Lamiñ maiteminduak urrezko eraztun bat ipiñi eutsan ezkerreko atxikarrean, gomutagarritzat.

ARTZAIÑA BERE AMAGAZ

Etxera ba-doa mutil ori ta:

—Ama —esan eutsan etxekandrari— ama: ezkondu edo zerbaít geuk bere oraingotan egin bear dogu.

—I... ezkondu!

—Bai, ama, bai!

—Nogaz, mutil?

—Neskatil eder bategaz.

—Nungo neska, baiña?

—Basora urteten yat bera.

—Basora urteten yakela..., ta beste barik ezkondu?

—Bai, ama, bai!

ABADEAGAZ

Ama ori auzuneko abaderi itandutera yoan zan. Eta abadeak mutilla beragana ekarteko agindu eutsan.

Yoan zan, bada, mutil ori abadearengana; eta auxe izan zan elizgizonak emondako burubidea:

—Begira egiok neskatil orreri anketara..., ea zelangoak daukazan.

—Bai, jauna, orrela egingo dot.

Mutillak urrengo egunean, emaztegiatz egonda gero, abadeagana jo ebañean:

—Paita anakak daukaz— esan eutsan.

—Emoiok, atzera, bere eraztuna, erantzun eutsan abadeak.

ARTZAIÑAREN ETSIPENA

Ba-doa mutilla bere arditara; eta an egozan luzaro, bere lagunaren zain. Au noizbaít agertu, ta eraztun ori emon nai, ta ezin atara ebillen, gaixoa.

Azkenean, bere atz txikarra ebagi, ta zapla!, jaurti eutsan eraztun ta guzti.

Ta etxeruntz etorrela, atzetik jarraitu eutsan lagunak, negar eta zotin.

Oera joan zan mutilla, negar eta zotin bera ere, eta ez zan sekula yagi.

Estonba'tar Aita Manuel, lagun ona ta idazlari ospetsua idazti au agertu baño lenago,

Urkiola'tik zerura igon dau. Otoi egin daigun bere alde. G. B.